

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**ARABAKO BATZAR NAGUSIAK**

7/2026 Foru Araua, maiatzaren 13koa, 2/2026 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 14koa, baliozkotzeko dena, onspena emateko Ekialde Ertaineko krisiaren ondoriozko egoera ekonomikoari erantzuteko premiazko zerga neurriei

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2026ko maiatzaren 13ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "7/2026 Foru Araua, maiatzaren 13koa, 2/2026 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 14koa, baliozkotzeko dena, onspena emateko Ekialde Ertaineko krisiaren ondoriozko egoera ekonomikoari erantzuteko premiazko zerga neurriei"; aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

7/2026 FORU ARAUA, MAIATZAREN 13KOA, 2/2026 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, APIRILAREN 14KOA, BALIOZKOTZEKO DENA, ONSPENA EMATEKO EKIALDE ERTAINEKO KRISIAREN ONDORIOZKO EGOERA EKONOMIKOARI ERANTZUTEKO PREMIAZKO ZERGA NEURRIEI

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa– 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, apirilaren 14ko 2/2026 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onspena emateko Ekialde Ertaineko krisiaren ondoriozko egoera ekonomikoari erantzuteko premiazko zerga neurriei.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

Artikulu bakarra. Baliozkotuta geratu da apirilaren 14ko 2/2026 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onspena emateko Ekialde Ertaineko krisiaren ondoriozko egoera ekonomikoari erantzuteko premiazko zerga neurriei.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 13a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA